

Aldaketa tipologikoa euskararen diakronian. Datuak eta irizpideak

Tipologia diakronikoak hizkuntzaren bilakabidea azaltzerakoan eta hizkuntzaren historiaurreko garai ezberdinak berreraikitzerakoan laguntza handia eman diezaguke. Hipotesi nagusia: gutxi ezagutzen dugun denbora luze batean zehar euskarak aldaketa sakon mordo bat jasan du arlo guztietan, guztiek sakoneko egitura bati jarraitzen diotelarik. Tipologia holistiko diakronikoak denboran zehar hizkuntzak pairatzen dituen aldaketak osotasun gisa azaldu nahi lituzke, orokortze honi *deriba* esaten zaio.

Hala ere, hizkuntzak ez dira beti orokortasunak dioen bezalakoak, ezta hitz ordenari dagokionean ere, eta arazo hau gainditzeko harmonia tipologikoa ideia sortu da: hizkuntzek euren oinarritzko hitz ordena aldatzean bestelako aldaketak ere egin ohi dituztela, horrela azalduz zergatik hainbat hizkuntza ez diren garbiki tipo batekoak.

Euskarari dagokionez, haren ezaugarri tipologiko tipikoak eranskaritasuna, morfologia ergatiboa, SOV ordena eta aditz joko aberatsa dira. Nolanahi ere, tipologia-irregulartasun bat ere badu gure hizkuntzak: 'izena + adjektiboa' ordena, berez SOV hizkuntza bati ez dagokiona. Honek, zer pentsa handia eman izan du eta bi hipotesitan iradoki da antzina eredu kanonikoaz bestelako ezer egon zitekeela. Bietan aditzaren osagaien azterketa eta aditzaren posizioa izan dira aztergai:

1. Trask (1977): SVO > SOV aldaketa proposatu zuen (SVO hizkuntzak ez dira ergatiboak izaten), aditz aurrizkien ordena aldatzeko. Hipotesi honek zituen kimu interesgarriak (*da-* aurrizkiaren jatorria, preposizioak, etab.) isilpean geratu ziren, baina berrartu dira.
2. Gómez (1994): euskara antzina VSO izan zela proposatu zuen. Hizkuntza askotan gertatzen den legez, aditzak ezingo zuen hasiera absolutuko posizioa bete. Hori dela eta, hizkuntza zeltetan eta semitikoetan ezaguna den prozesuaren antzera, euskal aditzak zatikiak, aditzaurrekoak (*da-* orainaldia) edota pertsona adierazten duten klitikoak (*n-* ni) hartuz joango zen denborarekin.

a) Adjektiboaren izaeraz

Adjektiboaren irregulartasuna haren izaera badaezpadakoarekin lot dezakegu. Baldin eta antzina adjektibo kategoria berez ez bazegoen eta berandu sortua bada, normala da adjektiboa izenaren eskuinetara agertzea, hortxe agertzen baitira adjektibo berri horren sorburuetatik hiru (eratorriak, partizipioak eta maileguak), erlatibozkoak salbu. SOV bati dagokion bezala, erlatibozkoak ezkerretara doaz; salbuespenak: fase sparita (gizon Paristik etorri dena), 'ur-din' 'bizar-dun' tankerakoak antzinako erlatibozkoak eta toponimian "ur dirakiena", "hartz eraena", "iturriadana" aurkitu da Aezkoan, Araba ekialde eta Gorbeialdean. Gauza bera leku-genitiboaren ordenari buruz: "andra Mari Baldako" "andra Milia Lasturko".

b) Aurrizki eta atzizkiak

Postposizio eta atzizkiak izatea ezin hobeto datorkio SOV izateari. Formari dagokionez, hiru fasetan bana ditzakegu: gardenak eta berrienak (-en gain-), kamusten hasitakoak baina oraindik gardenak (-rekin, -re(n), -gatik), ilunenak eta zaharrenak (-k, -i). Semantikaren aldetik, '-buru', '-begi', '-gain', '-behe'... oso arruntak oraindik izen bezala eta ez dira gramatikalizatu. Sarasolak (1997) aztertutako 32 atzizkiekin egindako hitzen herena XX mendean agertu lehendabizi. Lakarra (1997): oso berandu arte edozein errok ezin har zezakeen edozein atzizki, morfologikoki edo fonologikoki ustez egokia izan arren, eta XVIII hasieran erro mailegatuek soilik mailegatutako atzizkiak har zitzaizketen. Lakarra (2005): XVI mendean gaur egungo atzizki

sistema garatu gabe zegoen, literatur hizkuntzaren garapenarekin batera eta hein handi batean hartan bakarrik garatu da.

Aurrizki mailegatuak hartzeko joera ahula aipatu ohi da. Hala ere, preposizioak gardenegiak dira eta gutxiegi gramatikalizatuak oso aspaldikoak izateko, Traskek (1997) dioen bezala. Lakarrak CVCVC egiturako hitzetan aurkitu uste ditu, horietan CV- ezin izan baitaiteke erroa, hauek elkartuen lehen osagaian –C galtzen zuten (Erdi Aroko aldaketa, berria) CV- horiek ez dira inoiz bakarrik azaltzen, ezta hitzen eskuinean ere, aurrizkiak ziren. Erroak baino txikiagoak ziren, baliteke “*la, *sa, *gi...” antzinako aurrizkiak izatea. Lakarrak uste du “*la” ustezko aurrizkiak egiaztapen etimologikoa duela:

- Erdi aroan bokal artean “l” > “r” gertatu, beraz “la” eta “ra” atzizki bera
- Aurrizki gisa aditz arazle zaharretan “-ra-“
- Atzizki bilakatu zen “honela”, nola, bezala

c) Aditzoinetako irregulartasunaz

l-z hasten diren ondare zaharreko hitz oso gutxi, denak d-tik etorrira ere, ezin konparatu b- eta g- hasiera duten hitz kopururekin. AEZeko *d- ugari falta dira AEBan ez baita dagoeneko horrelakorik, Mitxelena berreraiketan ageri lez. Lakarrak proposatzen du *e-VC eta CVVC aditzoin irregulartasunaren zati bat, suposatuz *d bokal artean suertatu denean galdu egin dela, /d/ unibertsalki /b/ eta /g/ baino ahulagoa dela kontuan harturik:

Mitxelena: jVC < *e-VC

Lakarra: jVC < *e-VC < *e-dVC

- *e-dutz-i > e-utz-i > utz *dutz > *luz, luze
- jin < *e-din (etorri) > nadin (bilakatu, bihurtu)
 - trinkoak gramatikalki ziren eta jin lexikalizatu
- jakin < *e-dakin / josi < *e-dos-i / jarri < *e-darr-i

Urrats bat aurrerago, “jan” bezalako aditzetako “a” luze edo geminatua (jaan) eta aditz erro diptongatuetako bokalismoa azal daitezke pentsatuz batzuetan aditz erroan eta hitz barruan eta bukaeran “-ra” emango zuen aurrizki bera izan bailiteke:

- *e-da-dan > e-a-dan > e-aan > ja(a)n vs. *e-dan > edan
- *e-da-dus-i > e-a-dus-i > e-aus-i > jausi *e-duts-i > eutsi

Hipotesia bermatzeko da- aurrizki honen funtzioak zehaztu behar dira. Bestalde, ra- aurrizki historikoki fosildua (> -erazi, -erazi atzizkia) ezagua genuen, “jarraitu”, “inarrosi”, “jardun”, “ardano”, “urgatzi”.... azaltzeko “*e-da-ra-CVC” proposatu behar dugu. Noizbait aurrizki gehiago ziren, baina aditzeko garrantzia galdu zuten.

d) Bokalko harmonia

Lotuta dago eranskaria izatearekin eta funtzio demarkatzailea izan ohi du. Badirudi erreduplikazioarekin eta erro kanonikoa bi silabako bihurtzearekin lotutako fenomeno dugula euskaraz. Bi silabako hitz berriak hitz gisa hipermarkatzeko estrategia da. AEZ baino beranduagoko kontua da, baina Akitaniera baino lehenagokoa AEBkoa edo geroagokoa agian.

Bi silabako hitzen artean zaharragotzan joko genituzke CVCVC erakoak (zahar, zuhur) CVCV bezalakoak baino (bero, nahi), analizagaitzagoak direlako. CV1-CV1C erara zatikatu behar ditugu, eta CV1- aurrizkitzat jo, bokal harmonia ikusten da.

Demostratzen ari gara garai ezberdinetakoak direla aurrizkiak eta atzizkiak, eta aurrizkiak zaharragoak direla. Euskarak bi silabako erroak garatu zituen aspaldiko garai hartan, aurrizkiak baino ez zituen erabili, ez atzizkiak, eta honegatik aurrizkiak baino ez dira jausi bokal harmonia medio.

e) Ergatiboaren sorreraz

Traskek (1977, 1979) dio ergatiboa egitura pasibo batetik datorrela, baina ez. Ergatibotasun morfologikoa aski fenomeno azalekoa da, subjektu aktiboa perpausean dagoen beste IS bizidun batetik bereizteko erabiltzen diren estrategia bietako bat baino ez: 1 estrategia (ordena egilea jakiteko), 2 estrategia (IS subjektua markatzea ergatiboarekin).

Ergatibotasun morfologikoa V hasieran edo bukaeran suten hizkuntzetan agertzen da, ez SVO direnetan. Egia da ergatibo marka ezin zitekeela sor euskara VSO edo VOS egiturakoa zen aspaldi hartan, duela gutxi baizik, SOV egiturakoa egin ondoren, -k fonologiaren aldetik ezin baitaiteke zaharregia izan, *-T ezinezkoa baitzen. Noizbait *-CV izan zen, ziur aski *-gV, eta beraz ez dago oztopo fonetikorik lokatibo bizidunei ezartzen zaien *-ga markarekin lotzeko. Munduko hizkuntza askotan gertatzen da biziduntasuna eta ergatibotasunaren arteko erlazioa.

Nom-akk diren hizkuntzak osoki dira horrelakoak, baina erg-abs direnak askotan defektiboak izan ohi dira, hau da, ergatibo marka ez da non-nahi agertzen, biziduntasun hierarkiarekin loturik. Suposa dezagun euskal deklinabidea eratzeko prozesua aski aurreratua zegoenean lokatibo orokorra adierazten zuen marka bat erantsi zitzaiela bizidunei (*-ga eta gerora -k) orokortu egingo zena subjektu aktiboa adierazteko, edozein IS motarekin.

f) Aditzen eraldaketaz

Dravidiko (D) eta tibeto-birmanoen (TB) artean ezberdintasuna adjektibo kategoria aske bat izatean edo ez izatean datza. D hizkuntzek denbora kategoriaren inguruan antolatzen dute aditz sistema, TBek moduaren arabera. Ondorioa: Dk aditz estatiborik ez (ekintza adierazten dutenak bai), TBk ugari. Euskararen -i bukaerako adjektiboen eta partizipioaren marka zahar honekin suposa dezakegu aditz estatiboak adjektibo gisa berkategoriaturatu zirela hauen falta zela eta.

D hizkuntzetan denbora kategoria beharrezkoa da, modua eta aspektua ez bezala. TB hizkuntzetan moduaren aldetik ezberdintasun gehiago daude, eta are batzuetan denborazko markak desager daitezke. Hau erlazioa daiteke euskal aditz sistemak XVI mendearen bukaeran pairatu zuen aldaketa sakonarekin deribaren barruan. 3. pertsonako ustezko aurrizkiak (d-, z-, l-, b-) egiatan aditz kategoria nagusiekin (denbora, modua, aspektua) lotu beharrekoak dira. Modua adierazten zuten aurrizkiak ihartu edo balio berriak hartu zituzten eta denbora edo aspektuko atzizkiak garatu ziren. Baliteke lehen euskarak aditza moduaren inguruan antolatzea eta geroago aspektu-denboren inguruan; TB hizkuntzetatik urrundu eta D hizkuntzetara hurbildu zela. Eranskaritasunerako deriba jasan duela besta froga aske bat da.

D hizkuntzetan ezinbestekoa da kasu marka zehatze ezartzea elazio semantikoak adierazteko; TBetan, hitzunik erabakitzen du egoera bakoitzean ea markak desanbiguatu behar diren edo ez. Badirudi euskara tipologikoki D eranskarirantz hurbildu dela, TBtik urrunduz. Eranskarien

eredurazko hurbilketa hau ezin daiteke oso aspaldikoa izan, euskal deklinabidea aski berria baita.

Munda (M) eta Mon-khmer (MK) hizkuntzek, nahiz jatorri berekoak izan, ezberdinak dira oso. M hizkuntzak aldatu dira jatorritik, deriba delakoan aurrera egin dute muturreraino. Euskara egun M bezalako bada, pentsa dezakegu M hizkuntzek jasan dituzten aldaketa berak jasan dituela, bi abantaila utziz: 1) Konparazioaren laguntzaz, antzina nolakoa zen jakin dezakegu (MK hizkuntzen antzekoa) eta 2) eredu bat eskaintzen dio berreraikitzaileari bere lana oinarritzeko, anarkiko eta agian pertsonal izateko arriskutik apartatzeko modu bat.